

ABEREKIN, S.A.

Sozietatearen izena

Aberekin, S.A.

IFK

A48165468

Izaera

Sozietate anonimoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Sozietatea 1985ko urtarrilaren 31n egindako eskritura publiko bidez eratu zen. EAeko Administrazio Orokorrak kapital sozialean duen partaidetza onetsi zen xedapen honen bidez: [377/84 DEKRETUA, abenduaren 11koa, Euskadiko Autonomia Elkarteko Arduralaritzak, eratzebidean dagoen ABEREKIN, S.A. Akziokako Baltzuan partzuer izateko baimenari buruzkoa.](#)

Geroago, Eusko Jaurlaritzak, 1985eko azaroaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen, besteak beste, sozietatean parte hartzeari pixkanaka uzteko prozesua planifikatzea. Erabaki hori, sozietatearen 1988ko otsailaren 15eko Administrazio Kontseiluaren aktan jasota dagoenaren arabera, gauzatu zen Eusko Jaurlaritzak sozietatean zuen partaidetza Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait abeltzain-elkarteri salduta.

Amaitzeko, 2003ko ekitaldian, EAeko Administrazio Orokorrak berriro erosi zuen erakundearen kapital sozialaren zati bat, xedapen honen bidez onetsita: [239/2003 DEKRETUA, urriaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari Aberekin, S.A. akziokako baltzuaren kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematen diona.](#)

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

JESN

0162 Abeltzaintzari laguntzeko jarduerak.

Helburu soziala

Aberekin, S.A. sozietatearen jarduera nagusia da abereen hautaketa- eta ugalketa-teknikak garatzea eta aplikatzea; halaber, erakundeari dagozkio jarduera horren ondorioz sortu diren eta/edo jarduera hori garatzeko komenigarriak diren jarduera osagarri guztiak.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


Sozietate publiko ez-finantzarioa –Beste Autonomia Erkidegoa.

Kapital-soziala

2.321.164 €

Kapital sozialaren osaera

Kantabriako Gobernua	% 22,215
Bizkaiko Foru Aldundia	% 10,408
EAEko Administrazio Orokorra	% 8,616
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 8,555
Arabako Foru Aldundia	% 7,392
Nafarroako Gobernua (INTIA)	% 1,300
Zenbait abeltzain-elkarte (13)	% 41,514



Administrazio Kontseilua

Honako hauek dira 2013ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Rafael Prados Urgoitia jauna	Kontseiluburua
Santos de Argüello Díaz jauna	Kontseiluburuordea. Kantabriako Gobernua
Ikerne Zuluaga Zamalloa andrea	Idazkaria Bizkaiko Foru Aldundia

2013ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena

[Auditoria-txostena eta urteko kontuen laburpena 2013ko abenduaren 31n, eta 2013ko ekitaldiko kudeaketa-txostena.](#)

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	7.503.000 €
Ondare garbia	5.398.000 €
Negozio-zifraren zenbateko garbia	2.902.000 €
Batez besteko langile-kopurua	21

Sozietatearen helbidea

Parke Teknologikoa, 600. eraikina - 48160 Derio (Bizkaia)

Webgunea

www.aberekin.com